


# Bizitzatik urrun bizi den gure eskolaz, zuen galderak (eta II)



**ANE ABLANEDO LARRION**  
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

**I**kasturte bukaera hurbil genuen, iragan ekaineko hondar hartan hezkuntza-sistemari buruzko galdera batzuez osatutako kolaborazioa plazaratu nuen. Bukaeran, beharbada gogoratuko duzue, gonbitea luzatzen nizuen, irakurle estimatuoi, galdera gehiago egin zeniezaioten zeuen buruari. Gonbitea, dena esan behar da, modu erdi sinbolikoan, erdi egiazkoan bota nuen, baina nire harridura eta zorionerako, oso modu naturalean hasi ziren galderak ezinegonetik sortzen, han eta hemen agertzen, eta azkenean nire eskuetara iristen. Hemen duzue jasotako hamarnaka horien arteko lagina.

Ikasturte on euskal hezitzaile guztioi. Ea aurtengoa den iraultza burutuko dugun urtea!

- Zergatik jokutzen dugu haurrentzat onena zer den jakingo bagenu bezala, beraiei zuzenean inoiz galdetu gabe?
- Zergatik oinarritzen dugu irakaskuntza ikasleen erantzun onen bilaketan, eta ez galdera onak egiteko gaitasunaren garapenean?
- Zergatik dute hezitzaileen artean prestigiorik txikiena haur-eskoletako langileek, bizitzaren lehen urteak baldin badira pertsona baten konfigurazioan arrasto gehien utziko dutenak?
- Zergatik ematen du prestigioa hezitzaileen lanak, eta ez hainbeste zaintzearenak? Ez al da ariketa hagitzeko ederragoa haurrak zaintzea haurrak hezitzea baino?

- Zergatik dira inklusio planak beharrezkoak, ikaslegoa anitza dela eta ikasle guztiak desberdinak direla ulertzen badugu?

- Zergatik ez diogu ikasketari, benetan ikasketa esanguratsu bilakatzeko beharko lukeen denbora eskaintzen? Zergatik nahiago dugu edukien kantitatea, kalitatea baino?

- Zergatik gabiltza beti estresatuta? Zergatik izaten dugu oihu egiteko gogoia eskolatik ateratzen garenean? Zergatik dauka eskolak bertako parte-hartzaileen ongizatea eragozteko halako gaitasuna?

- Zergatik daude eskola eta bizitza elkarrekin hain haserre?

- Zergatik dira eskolan askoz garrantzitsuagoak zientziak, humanitateak baino? Zergatik desterratu dugu artea eskola-eremutik?

- Zergatik ateratzen dira euskal haurrak eskolatik Euskal Herria nazio menderatua dela behin ere entzun gabe?

- Zergatik (eta non) galdu du burua eskolak? Eta bihotza?

- Zergatik dago eskola naturatik hain urrun eta urrunduta?

- Zergatik daude haurrak eskolaratzeko laguntza ekonomikoak –garraioa, jantokia...– eta ez haurrak etxean gurasoekin denbora luzeagoan egon ahal izateko?

- Zergatik saiatzen gara ikasketa kooperatiboa izan dadin, aldi berean kalifikazioen bitartez lehiakortasuna bultzatzen baldin badugu?

- Zergatik egon behar dute hurrek hainbeste denbora eserita?

- Zergatik jartzen ditugu sistemaren interesak, ikaslearen beharren aurretik?

- Zergatik ahaztu dugu hain erraz, nolakoak ginen 5 edo 15 urte genituenean? Zergatik dugu halako zailtasuna, adin horretan nahi genituen heldu horiek bilakatzeko?

- Zergatik iruditzen zaigu azterketa bat pertsona baten jakintza neurtzeko modurik egokiena, denok dakigunean egin eta berehala ahaztu egiten dela ikasitakoa?

- Zergatik eskatu behar da baimena komunera joateko?

- Zergatik eskatu behar izaten da denarako baimena? Zergatik beti irakasleari? Zergatik ez dugu irakasleok kasik inoiz, eta ezertarako, baimena eskatzen?

- Zergatik pasatzen zaigu hain oharkabean eskolak duen curriculum ezkutukoa –zeinaren bitartez egiten duen eskolak "heziketara" lan handiena–, eta kezkatzen gaitu hainbeste, ordea, agerikoak?

- Galdera hauek guztiak –eta egin genitzakeen beste ehundaka– eta gero, zergatik diogu hainbesteko beldurra gauzak beste modu batean egiteari?

- Zergatik ematen digu beldurra eskola-sistematik ateratzeak?

Milesker denei, zorte eta kuraia on! ●